

Ezkiio-Itzasoko Herri Aldizkaria

II. Aldia - 41 zenbakia
2003. urteko maiatza

berriro ere Korrika!!!



ezkiio

Itsason**lokal berria**

Apirilaren 5ean ireki zituen ateak Itsason pres-tatu den haurrentzako lokal berriak. Ostatu azpian kokaturik dagoen gela honek, Udaleko lan-gileen lanaren ondorioz itxura benetan ederra zuen irekitze-egunean.

Hemendik aurrera herriko eta bereziki Itsa-soko hurrek txoko apai-na izango dute jolastu eta txiki-txikitatik elkarren arteko harremanak sakondu eta estutzen hasteko.

**Egunkariaren aldeko mozioa****Egunkaria**

Ezkio-Itsasoko Udalaren azken osoko bilkuran, beste erabaki batzuen artean, orain gutxi itxiriko *Egunkaria*-ren aldeko mozioa onartu zen.

Mozio honetan, *Egunkaria* osatzen duten kide guztiei ekintza sinestezin honen

aurrean babesa eskaintzeaz gain, aurrerantzean tinko lanean jarduteko adorea eman nahi die Udalak eta, bide batez, sortu daitekeen komunikabide euskaldun berria bul-tzatzeko asmoz, harpidetza bidez dirulaguntza ematea erabaki zen.

Eup!**41.**

**ALE HONETAKO
KOLABORATZAILE ETA
PARTEHARTZAILEAK:**

Gotzon Aranburu
Miren Azpiazu
Izaro Beitia
Iñaki Bastarrika
Maider Etxaide
Joxe Etxeberria
Ximon Idiakez
Miren Iturralde
Iñaki Mendiguren
Pilare Mujika
Jon Osinalde
Ricardo San Vicente
Ane Zabaleta

LEGE GORDAILUA SS-288/93
ISSN • 1133 - 1941

*Konposaketa eta inprimaketa
Gertu inprimategia, OÑATI*

KZ gunea

Orain urte batzuk gehienok ordenagailua traste arraroa bezala ikusten genuen. Gaur egun, ordea, gure eguneroko bizitzan toki garrantzitsua eskuratu dute. Nork ez du inoiz entzun internet hitza?

Informatika-mundua herritarrei ahal den neurrian gerturatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak programa berria jarri du martxan. Gure herriari dagokionez, udaletxean hainbat ordenagailu kokatuko dira eta maiatza-

ren bukaera aldera herritarrei zuzenduriko ikastaroak hasiko dira.

Ikastaro hauek dohainik izango dira eta informatikari buruz ezer ez dakitenei zuzenduak daude.

Informazio hau aurrerapen gisa doakizue, baina garaia iristen denean Udalak informazio guztia zuen etxeetara bidaliko dizue.

Eup!ek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



EZKIO-ITSASOko Udalaren
diru laguntza jasotzen du.

Antenak herrian

Ezkio-Itsason, beste hainbat herritan bezala, hainbat kezka eta zeresan ematen dute telebista eta telefoniako antenak. Telebistari dagokionez, bi antena erraldoi ditugu herrian. Bat Mendizabal baserriaren alboan eta bestea Plazategi baserriaren inguruan. Mendizabalgo antenari buruz, esan behar, eguraldi txararren eraginez orain dela gutxi erori egin zela, honek sortu dezakeen arriskuarekin. Gaur egun, berriro ere martxan dago, baina baldintzaturik. Udalak konpromiso sendoa hartu du ahal den neurrian kokapen berria aurkitzeko.

Telefoniako antenei dagokionez, bi ditugu herrian. Bat A.D.U.8 Santa Lutziako industrialdean eta bestea Uribar baserriaren inguruan.

Egoera honen aurrean, Ezkio-Itsasoko Udala, beste Udala batzuekin batera, araudi berria martxan jartzeko asmoarekin lanean ari da. Aldaketa honen helburua, antena hauek kalterik gutxien eragingo duten lekuan kokatzea da eta bide batez ahalik eta gutxien kokatzea.

Dena den, ezin ukatu eraikuntza hauek inoren gustukoak ez direla, baina modu berean denoi gustatzen zaigula lasai-lasai telebista ikusi eta gure telefono mugikorrarekin hitz egitea.



Gotzainaren bisitaldia

Joan den martxoaren azken egunetan Gipuzkoako gotzain den Juan Mari Uriarteren bisitaldia izan dugu Ezkion.

Jose Maria Setienek kargua utzi zuenenean, Juan Mari Uriarte bizkaitarrak hartu zuen Gipuzkoako Eliza zuzentzeko ardura. Bideak sakondu eta erabakiak hartzeko ezinbestekoa da lehenik eta behin Gipuzkoa osoko eliza eta eliz barrutien egoera eza-gutzea. Helburu horrekin izan dugu Juan Mari Uriarte gure artean.

Eliza eta bere inguruko jendea ezagutu eta beraien iritzi eta kezkek jaso ditu gotzainak gure artean izan denean. Alde batetik Elizaren beharrak, ugariak noski, eta bestalde katekista, eliz batzordeko kide, eliza garbitzen dutenen eta abarren aho-tsa lehen eskutik entzuteko aukera izan du Uriarte jaunak.

Guzti hau giro jatorrean, hamaiketako eta guzti. Gainera nahi izan duten herriko gaixo eta adinekoek, beraien etxeetan gotzainaren bisita jasotzeko aukera izan dute.

H e r i o t z a k

Joxe Etxeberria Uri
Agerrebengoa Baserría – 2003-03-12

eup!

ALTZIBAR
lorategia

GABIRIA
Tel. 943 88 26 80

Haziak
Bizitegiak
Lorazaintzarako lurra
Produkto Fitosanitarioak
Lore eta Landare naturalak

EZKIO-ITSASOKO HERRIKIDEAK

Hautagai zerrendaren egitaraua.

Aurrez esan, **zerrenda bateratu bat (denok batera)** osatu izan balitz, Ezkio-Itsasoko Herrikideak taldea ez zela aurkeztuko; izan ere, **zerrenda bateratu baten alde gaudela** garbi utzi nahi dugu eta, ez dugu baztertzen, Ezkio-Itsasoko herriari **kontsulta** bat proposatzea zein sistema (zerrenda asko edo zerrenda bakarra) duen gogokoen jakiteko.

Egitaraua. Hona hemen gure printzipio nagusiak:

Oso beharrezkoa da partizipazioa bultzatzea. Nahiz eta partaidetza gehituz doan, oraindik ere jende gehiagoren parte-hartzea beharrezkoa ikusten dugu.

Elkarlana eta herri kohe- sionatu baten beharra garrantzitsuak dira, eta horregatik agertu nahi dugu gure jarrerarik irekiena denok batera lan egiteko.

Herritarron ongizatea da gure helburu. Horrelako eginkizunetan sartzeko prest gauden mementotik, gure helburu bakarra oso garbia da: herritarron ongizatea.

Horiek kontuan izanik, zenbait arlotan egin nahi genituzkeen ekintzak aurkeztuko dizkizuegu ondoren.

A) Herrian sortutako ekintzak edota proiektuak. Zer esanik ez, honelako proiektuek izango dutela lehentasuna. Adibidez:

HIRIGINTZA: Garrantzi handia ematen diogu **Arau Subsidiarioak onartzeari** eta eraikuntza bat egiteko baimenaren zain daudenei tramiteak errazteko bideak aurkitzeari.

diarioak onartzeari eta eraikuntza bat egiteko baimenaren zain daudenei tramiteak errazteko bideak aurkitzeari.

Etxebizitzak bermatzea da gure beste helburu bat. Bereziki herritarrei begira; baina baita herrira bizi izatera etorri nahi duten guztiei begira ere. Beste proiektu garrantzitsu bat **Ezkio eta Itsaso komunikatzea** da. Bai herri egiteko garaian eta baita herriko komunikazio sarea osatzerakoan.

Bestetik, **industriagintza** ere landu beharreko gaia da; baina pentsatzen dugu Ezkio-Itsasok beste herrietako industria onartu behar badu, gure herriaren garapen osasuntsua hipotekatu gabe beharko duela izan.

NEKAZARITZA: **Base- rriak Bizirik** lan taldeari eduki gehiago eman eta talde horren eta Udalen arteko harremanak aztertu, orain arte "Nekazaritza batzordea" izan dena, jarraian talde hori izan dadin.

ZERBITZUAK: Arlo honetan gai asko sartzen dira, baina gutxi batzuk aurreratuko ditugu: **-Ikasleen garraioa subentzionatu.** Ikasleek herritik kanpora irten behar dutenez beren ikasketak egitera, bidezkoa ikusten dugu, garraioaren kostua ahalik eta merkeena izatea denentzat. Horregatik laguntzak eskaintzen ditugu.

-Baserrietako helduei ahalik eta zerbitzu asistentzialik onena eman nahirik, beharrezkoa da, besteak beste, zentro asistentzialetan zein anbulantzia enpresetan herriko base- rri eta etxeak aurkitzea erraztuko duen mapa banatzea larrialdietarako.

KULTURA: - **YARTU** taldearen lan onari laguntza eskaini eta herriko kultur ekintzak bere gain har



ditzan pausoak eman.

-Haurtzaindegi baten beharra aztertu; baita **Herri Eskola** baterako bidea ere, oraingo gazterriaren sakabandaketa gelditu asmoz.

-Denbora-pasako jardueri jarraipena eman, ikastaroak, tailerrak, etab. antolatuz.

B) Herritik kanpo sortutako proiektuak.

Proiektu hauek beste erakunde batzuek sortutakoak eta bultzatutakoak dira; baina gure herrian eragin handia izan dezaketenak eta dutenak. Hauek, gure herria hipotekatu lezaketenez neurrian, eragozten saiatuko gara; baina proiektu hauen exekuzioa gertatu ezina bada, ahalik eta onura gehien ateratzen saiatuko gara.

Proiektu horien artean, Beasain-Durango errepidea eta AHT-Abiadura Handiko Trena ditugu.

Beraz, hau izango litzateke, gutxi gorabehera, gure egitaraua maiatzaren 25eko hauteskundeetarako. Ziur izan, batzuetan asmatuko genuke eta beste batzuetan ez hainbeste, baina borondate onena jarriko genuke, dudarik gabe.

"INDARTUZ AURRERA" herri-ekimena



Nor gara? Gu Ezkio-Itsasoko herritarrak gara. Guztiok antzeko kezka eta asmoak ditugu. Guztiz irekia dagoen talde bat osatu dugu eta "INDARTUZ AURRERA" jarri diogu izena.

Martxoaren 30ean aurkeztu genuen geure burua eta gaur ere zuregana jotzen dugu badakigulako asko eta asko gurekin bat zatoztela.

Zergatik sortu dugu talde hau? Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoerak, justizia ezak, demokrazia gabeziak... kezkatzen gaituelako.

"BATASUNA" legez kanpo uzteak, ezker abertzalearen ideologia ezabatu nahi izanak... kezkatzen gaituelako.

Ahotsik gabe utzi nahi gaituztelako.

Egoera honi aurre egin nahi diogulako.

Herri izan nahi dugulako. Benetako konponbidean sinesten dugulako. Iruzurrik ez dugulako nahi.

Gure helburuak

- Euskal Herriak dauka hitza eta erabakia, euskal herritarrok erabakitzeko eskubidea, hau da, AUTODETERMINAZIOaren alde lan egingo dugu.
- Demokrazia eta justizia gabezia nabarmena da. Gure lana hori salatzea da, indarrak batuz, herri zuzen eta demokratikoa erakitzea.
- Ezkertiarren ikuspegitik, herriak arlo sozial, politiko eta kulturean parte zuzena hartzea.
- HAUTESKUNDEETAN PARTE HARTZEA.

HAUTESKUNDE-PROGRAMA: Beste ezer baino lehen, esan nahi dizugu udaletxean ate guztiak irekita izango dituzula eta bertan guztion asmo eta nahiak guztion artean aztertu eta aurrera eramateko aukera izango dugula. Hala nahi genuke eta horretan saiatuko gara.

HIRIGINTZA - Arau subsidiarioen bidez herriaren antolaketaren egokia.

- Industria gune egokia.
- Etxebizitzaren kokapen egokia.
- Nekazaritzako luraren antolaketa egokia.

ETXEBIZITZAK: - Herrian bizi nahi duten herritarrentzat etxebizitzak eraikitzeko erraztasunak bilatzen laguntzea.

- Babes ofizialeko etxebizitzak bultzatzea.
- Ezkio eta Itsasoko herriguneak indartzea.

NEKAZARITZA: "Baserría bizirik" en eta Udalaren arteko harremanak indartu eta bertan erabakitzen dena aurrera eramaten ahalegintzea.

KULTURA: "YARTU"ren eta Udalaren arteko harremana bultzatu eta indartzea. Hortik sortzen diren kultur ekimenak aurrera eramaten ahalegintzea, hala nola:

- Haurrentzat udalekuak, larunbateko saioak...
- Kultur hamabostaldia.

- Olentzero, San Juan bezpera...
- Irteerak, ikastaroak, informatika...
- Liburutegia, argazki zaharrak...

ESKOLA-HAURTZAINDEGI: Haurtzaindegia sortu eta aurrera begira eskola sortzen ahalegintzea. Oso garrantzitsua deritzogu Ezkio-Itsasok bere eskola izateari; izan ere, eskolak integratzen ditu haurrak herrian, eskolak errotzen ditu haurrak herrian eta horrela konponduko lirateke sakabanaketak berekin dituen zenbait arazo.

ZERBITZUAK: -Herritarrok garraio publiko egokia izan dezagun ahalegintzea.

- Ur-zerbitzua hobetzen ahalegintzea.

OSASUN-ONGIZATEA: - Etxez etxeko laguntza egokia eskaintzea.

- Jubilatuentzat elkarguneak sortzen ahalegintzea eta aisialdirako programak osatzea (ikastaroak, informatika...)

GAZTERIA: Gurea bezalako herri sakabanatuan oso premiazkoa ikusten dugu herriko gazteek elkar ezagut dezaten bilguneak egokitzea eta horretan ahaleginduko gara.

- **KIROLA:** - Herrian ditugun kirol-guneak indartzen saiatzea.

- Kirola egin nahi duten herritarrei bideak errazten laguntzea.

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!

A.H.T., ABIADURA HANDIKO TRENIK EZ DUGU BEHAR!

Labur-labur bederen, gure berri eman dizugu eta orain hobeto ezagutzen gaituzu. Zuk duzu hitza, zure esku gelditzen da zer egin; baina jakin, maiatzaren 25ean, gure aukera gustatzen bazazu, hor izango dituzula:

"INDARTUZ AURRERA" (herriko zerrenda)
AUB (Batzar Nagusietarako zerrenda)

ASKO GARA, BIL GAITEZEN ETA INDARTUZ AURRERA

Eskolari oraindik ez zaio ordua iritsi

■ Pilare Mujika

Herriko hainbat gurasok hiru hilabete eman ditugu herrian eskola jartzeko ahaleginetan, baina oraindik ez dela garaia iritsi eta behar diren baldintzak betetze aldera beste pauso batzuk emango dira bitartean.

Hogeita hamar bat urte bada auzo bakoitzeko eskolak itxi zirela, lau guztira. Gaur egunera etorritz, berriz, Ezkio-Itsasotik inguruko bost herritara eta beste hainbeste ikastetxetara 12 urtez beherako 50 bat seme-alaba bideratzen ditugu.

Hamabi urte artekoak 65 ume ditugu herrian, eta datu hori aintzat hartzeko modukoa duela herri batek pentsatzen genuen zenbaitzuk, baina normala denez, bat-batean ezin ditugu umeen eta gurasoen ohiturak aldatu eta berregokitze lanetan murgildu.

Hau da, eskola eraikitzen hasteko, aldiko, 2 urtetik 3ra bitartekoek hartu beharko lukete erabakia (eta handiagoren batek nahiko balu), eta beti ere oso kopuru murriztasun arituko ginatela, nahiz eta urtero, batez beste, 5 ume jaio.

Oraingoan horixe gertatu zaigu, 3 ume bakarrik genituen eskola hori sortzen hasteko eta, hori ikusita, beste kontu batez ere ohartu gara: guraso eta ume txikiaren arteko harremanak lehenagotik lantzen hasi beharraz.

Beste era batera esanda, ludoteka eta udaleku eta gainerako jarduerak, beti ere, 3 urtetik gorakoentzat antolatzen baditugu, merezi duela txikiagoekin



inbertitzeak ere. Bestela, harrigarria iruditu bazaigu ere, hainbat gurasok ez genuen elkar ezagutzen ere, herrian bertan bizi izanda, oraingo bilera hauek topagune bihurtu zaizkigun arte.

Hori aztertzeko, guraso batzuk biltzen hasteko ideiarekin dihardugu: nola gure umeekin liburutegi orduak aprobetxatu elkarrekin, Itsasoko ludoteka berria antolatu, jarduera berri batzuk martxan jarri, zenbait hitzaldi... eta 0-3 zikloa indarrean jartzen bada, agian etzi eskola izan ote dezakeen herri honek... Zertxobait gehiago gorpuzten hasten denean deialdi zabala egingo da.

Bien bitartean, Udalak bere gain hartu du 0-3 zerbitzua bultzatzearen asmoa, gurasoek beharrezko ikusiko balute, behintzat. Horren harira, apirilean izango da bilera.

Udaberria eta osasuna

■ Ricardo San Vicente

Mesedez, Ricardo, emazkiguzu argibideak udaberriak jendearen osasuan duen eraginaz: alergiak, katarro/gripeak, bihotzekoak, depresioak, hipertentsioa... Egia al da estatistikoki gaitz hauek ugartu egiten direla udaberrian? Zeintzuk eta zer-gatik? Nola aurre egin?

Udaberriaren etorrerarekin batera, gaixotasun-sorta bat berragertzen da loreak bailiran. Zuhaitzen adarretan hostoak berdetzen ikusten ditugu, eta udazkenean galdu zituenak orain bere soineko berria erakusten du festa batera joango balitz bezala, gordeta izan duen bere polen edo altxor preziatua lau haizeetara bidaliz. Baina polen hau jende askorentzat osasun-arazo ugariaren iturri bilakatzen da. Emakumeen izenak diruditen era askotako polenak daude: artemisia, kasuarina, amarantos, gramineak. Izen politak, baina gaixotasun alergikoen eragile zuzenak eta udaberrian bazter guztietan topa daitezkeenak. Dermatitis, sudurreko ur-jarioa, begietako konjuntibitisa eta bronkioetako asma dira ugarietak eta udaberriarekin lotura handiena dutenak. Badira beste gaixotasun batzuk, depresioa esate baterako, sasoi honetan areagotu edo azaltzen direnak, nahiz eta urtean zehar edozein garaitan agertzen diren. Eta zer esanik ez, gripeak eta katarroak, azkeneko hauek bronkioetako asma alergikoaren adierazleak besterik ez diren arren. Bihotzekoak, hipertentsioa eta aparatu kardio-baskularreko zenbait gaixotasun inoiz udaberriarekin erlazionatu nahi izan badira ere, ez da hori egiaztatatu duen azterketa seriorik egin. Beste faktore batzuk dira gaixotasun hauen agerpenean eragin handiagoa dutenak:

gatzaren kontsumoa, herentziazko joera, elikadura eta abar.

Beraz, **asma eta gaixotasun alergikoak** izanik udaberriarekin lotura estuena dutenak, honi buruz argibide eta **aholku** batzuk eman nahiko nizkizuke. Polenak eta etxe barruko akaroak, animalien ileak eta onddoak arnasten ditugunean bronkioetaraino iristen dira eta bertan bronkioetako gehiegizko erantzuna sortzen dute. Bronkioak estutu egiten dira eta haizeak bertatik pasatzeko zailtasun nabarmena du, eztula, txistu-hotsak, bestelako hotsa eta karkasa sortzen delarik. Polen eta akaroak sorrarazten duen bronkioetako gehiegizko erantzunari deritzo alergia.

Aholkuei dagokienean, badira batzuk kontuan hartuz gero alergiari aurre egiteko baliagarriak direnak. Hauexek dira funtsezkoenak:

- Ez ibili mendian haizeak hegoaldeket jotzen badu. Polena ugariagoa izaten da

eta asma krisia izateko arriskua handia da.

- Logela aireztatzeko egunsentia edo goizeko lehenengo orduak izaten dira onenak, jardun honetan 5-10 minutuko tartea erabiliz. Gauetz leioa itxita edukitzea komeni da.

- Autoan bazabiltza itxi leihoak, bestela memento batean polenaz bete daiteke ibilgailuaren barrua.

- Kalean eguzki betaurrekoak erabili, konjuntibitisa ekiditeko.

- Eta etxe barruan, alergia duenaren logelan kendu panpinak, liburuak, alfombra eta akaroen biltoki izan daitekeen guztia.

- Garbiketa egiterakoan, logeletako hautsa ez harrotzeko, trapu heze batekin garbitu.

Bukatzeo gogorazi aipatutako neurriez aparte ezinbestekoa dela medikuntzatamendu egokia ondo betetzea. Ondo izan eta hurrengo arte.



Udaberria: lorak, polena... eta alergiak.

AKTOREAK HERRIAN

■ Izaro Beitia eta Ane Zabaleta

Martxoaren 8an “*Bi jango ditut*” antzerki arrakastatsua izan genuen Kultur Etxean herrikoek antzeturik. Bertara jende ugari hurbildu zen, batez ere antzezleak ezagunak zirela eta. Ikusleoi ordubetea motz egin zitzaigun arren, oso kritika ona egin genion bukatu ondorengo solasaldian. Izan ere, bertan jorratzen ziren gaiak herrirako ondo egokituak zeuden; bai Joxetxoren (Aritz Zumarraga) herriko plazako maitasun-kontua zela-eta sortutako adar jotzeengatik eta baita Narraspek zenuak lurperatzeko duen dohainaren inguruan egindako komentarioarengatik ere.

Bestalde, antzezleek egindako lana bikaina izan zen, euren paperetan barreneraino sartuta agertu baitziren, nahiz eta batzuk beren lanean sartzen esfortzu

handiegirik ez zuten behar izan. Hala nola, akolito gisara aritu zen Aitor Zalduak; orduan ere isilean bizkotxoak jateko asmoarekin baitzegoen. Aritzek ere, Joxetxoren papera eginez, argi utzi zuen bere festarako grina.

Guk, ikusleok, antzerki-munduan lehen pausoa eman zenuten guztioi, zuzendari, dekoratzaile eta makillatzaileak barne, lanbide honetan etorkizun oparoa izan dezakezuela adierazi nahi dizuegu. Beraz, hemendik aurrera ea ikuskizunak maizago prestatzen dizkiguzuen.

Amaitzeko esan behar da, ekitaldi hau ikusteko aukerarik izan ez zenutenok apirilaren 27an, igandean, beste aukera bat duzuela Gabiriako antzokian. Beraz, anima zaitzte!



Ezkio-Itsaso bere etorkizunaren bila

■ Maider Etxaide (Uggasa)

Duela urtebete baino gehixeago Ezkio-Itsasoko Udalak *Agenda 21* prozesuan murgiltzeko erabakia hartu zuen eta horrekin batera ingurumenarekiko errespetua eta herritarren ongizatea bermatzeko inoiz baino konpromiso handiagoa hartu zuen. Prozesu honen ondorioz, Ezkio-Itsaso udalerrriaren norabidea jasangarritasunez zipriztintzen hasi eta herritarren oraina eta geroa forma berria hartzen hasiko da. Ekimen ezin garrantzitsuagoa, beraz, ezkio-itsasoarrentzat!

G: Zertan datza Tokiko Agenda 21 eta zein da bere jatorria?

E: Joan den mendeko 70 eta 80. hamarkadetan gertaturiko ekonomia krisialdiak kontzientzia berri bat sorraz zuten eta ikusi zen garapen-formu-

la berriak bilatzen hasi behar zirela hazkunde ekonomikoa, ingurumenaren kontserbazioa eta gizateriaren bizi-kalitatea bateragarriak izan zitezen. Garapen-mota horri "jasangarri" deitzen hasi zitzaion eta berau helburu zuela antolatu zen 1992an Brasilgo Rio de Janeiron Ingurumen eta Garapenari Buruzko Nazio Batuen mundu mailako Jardunaldia. Bertan hitzarmen zabal bat lortu eta hainbat agiri taxutu ziren. Horietarik garrantzitsuenetakoa, dudarik gabe, **Agenda 21** deitua da, garapen jasangarria lortze aldera burutu beharreko lan-plangintza, alegia. Agiri honetan tokiko gobernu guztiei, handi zein txikiei, beren Agenda 21 propioa eratzten has zitezela eskatzen zitzaion. Hamar urtetik gora igaro dira orduz geroztik...

G; Hamar urteren buruan Ezkio-Itsason Agenda 21 ezartzen hasi da. Nola gertatu da hori?

E: Ezkio-Itsasok Urretxu eta Zumarragarekin batera ekin zion prozesuari 2001eko abenduan Urola Garaiko Garapen Agentziaren bultzadari esker. Hiru udalok, eta Legazpik ere bai (azken hau urtebete lehenago hasi baitzen), hainbat Administrazioarekin hitzarmen bat sinatu zuten udal-talde bat sortzeko. Elkartzeko modu honek prozesurako dirulaguntzak jaso ahal izatea bermatzeaz gain, elkarlanerako aukerak zabalitzen zituen, emaitza bera lan gutxiago eginez lortuz.

G: Zertan datza prozesu hau: zeintzuk dira bere ezaugarriak?

E: Prozesu honen ezaugarririk garrantzitsuenak parte-hartzailea izatea



da, hau da, herritar eta udal eragile guztiek parte hartu behar dute bere atal guztietan. Herri osoak ibili beharreko bidea da, herritarren bizimoduaz eta udalerrriaren orainaz zein geroaz jardutea baita prozesuaren mamia. Hiru fase nagusi lituzke egitasmo honek: aurrenik herriaren gaurko argazkia lortzea, hots, diagnostikoa egitea. Bigarrenik, norantz jo nahi dugun erabakitzea, eta horretarako helburu batzuk eta jomuga horiek lortzeko ekintzak diseinatzea. Eta azkenik, Ekintza horiek martxan jartzea eta prozesuaren norabidea egokia den jakitearren noizbehinkako neurketak egitea. Azken hau adierazleak erabiliz egiten da.

G: Zein puntutan gaude orain?

E: Oraintxe bertan diagnostikoa burututa dago eta bigarren atalean bete-betean sartuta gaude: norantz jo nahi dugun erabakitzen, alegia. Asmoa da datorren legealdiaren hasierari begira lehentasunezko plan bat erabakita egotea, hainbat ekintza lehenbailehen martxan ipini ahal izateko.

G: Burutu berri den Diagnostikoa zein argazki eskaintzen digu?

E: Diagnostikoaren emaitzak eta helburuak aldizkari honen hurrengo ale bateko estrarekin batera argitaratuko dira. Nolanahi ere, orain arte idatzi diren dokumentu guztiak udaletxean daude, interesa duen edonoren esku.




Abiadura Handiko Astoa

■ Iñaki Bastarrika

TRENAK ezin du aurrera egin. Eragozpenen bat dagoela dirudi. *–Itxita dago bidea!* –oihukatu du makinistak Ezkioko estazioan. Jimmy Presacca, ordu laurden bere jarlekuan ezin egonik, erabat harritu da abisu horrekin eta trenetik behera jaitsi da. *–Berdura handi batek hartu du trenbide guztia-* esan du interbentoreak, zulangailua txaketako patrikan sartuz. Presacca hurbildu egin zaio eta gorbata zuzenduz, aurpegira bota dio: *“Hau al da Abiadura Handiko Trenaren martxa? Goizeko hamaiketan Bilbon egon behar dut, bileran inportante batean. Zer arraio gertatzen da?”*. Ez dio inork erantzun. Denborarik galdu gabe, patrikatik eskuko telefonoa atera eta Anduagako zelaian sartu da, nagusiari deitzeke. Lur bustian, bustia beti busti, irrist egin eta, plost!, putzura erori zaio telefonoa: *“Kaka!, horixe behar nian!”*. Makurtu eta jaso dueneko, telefonoak ez du ibili nahi, ur zorrotada lokaztu bat dario, besterik ez, zenbaki botoien artetik. Mokasinak lokatzetan sartuta dauzkan Presacca jaunari kosta egin zaio, eta asko, handik ateratzea. Trenera igo, bere maleta astuna, beltza eta azal-gogorra hartu eta

kanpora atera da berriro. Ezin du sinetsi begien aurrean daukana. Trenbidea, Zumarragara doana, aza-sail batek hartua dauka. Ehunka, milaka, milioika azaburuk itsaso berde bat osatzen dute, hertsu-hertsu. Ez du entenditzen nola baratze batek trenbidea inbaditu duen. *–Atzo, bidea garbi-garbi zegoen-* adierazi du atzetik makinistak, horrek dena argituko balu edo. Jimmy Presaccak ez daki nola esplikatu dion jefeari han gertatzen dena. Froga bat eraman beharko dio, bestela lepoa bihurrituko dio. Bidaia berean doan aitona bati labana eskatu eta azaburu bat hartu du maletan sartzeko. Azaburu handia denez, ez da ondo ohatzen maletan, baina ez du ez, han uzteko asmorik. Ezta pentsatu ere! Zumarragara iritsi behar du lehenbailehen eta handik Bilbora. Anduagako zelaian barrena sartu da kamino aldera, han atzamarra egiteko, baina ezin du inolara ere maletaren astunarekin. Ingurura begiratu eta non ikusten duen astoa larrean. Ez bat eta ez bi; hartu du muturretik. *“Etorri, astoa!”*. Jarri dio ganean maleta, ez kartola eta ez txalma, eta poliki-poliki ekarri du kaminora. Aldamenetik



lagunduz, esku batekin maletari astoaren bizkar gainean utsiz, ekin dio Zumarragako bideari. Astoa, pixka bat ibili ondoren, Errota parean gelditu zaio, lehenagoko usadio edo, batek daki, eta orduan "arre astoa!" esanez zaplada eder bat eman dio ipurtaldean. Orduan, jakina, astoa korrikan hasi eta "poliki-poliki" deiadar egin arren, ez zaio gelditu lzarre pare horretaraino. A zer arnas estuak, asto egoskorren erruz! Maleta hor joan da itzulipurdika lurrera. Ireki eta azaburua bueltaka-bueltaka iritsi da kamino-bazterreraino. Katalogo komertzialak busti eta lokatzez zipriztindu dira. Etxekoei sokatxo bat eskatu eta aza berriro maletan sartuta, asto gainean jarri eta bidaiari segi dio. Busintza pasa eta berehala, astoa berriro gelditu da. Club.

"Hurrengo batean izan beharko du!" erantzun dio Jimmyk astoari, begi-keinu bat eginez. Pausaje arinean, igo dute Eitzako aldapa eta iritsi dira Zumarragara. Estaziora zuzen-zuzen joan da astoa, egunero joango balitz bezala eta han Jimmy Presacck autobus eta trenen ordutegiak galdetu ditu. Bilbora ordu oro daude autobusak eta aurki, gainera, tren txiki bat jarriko dute, Maltzagara zihoan haren bidetik. Goiza aurrera doa, baina Jimmy Presacca pozik dago, Bilbora garaiz helduko delako. Muxu eman dio astoari ezpainetan. Autobusa heldu denean, leihatila zabaldu eta begi distiratsuekin agur egin dio astoari:

-Poliki joan eta kontuz, trafikoa handia dago eta!

Ezkioko Ostatua

Espezialitatea:
ARKUME ERREA
◆◆◆◆◆
Tel. 943 72 02 67
EZKIO



ITSASOKO OSTATUA

Tfno.: 943 88 03 15
ITSASO



LABEKOA
j a t e t x e a

Santa Luzia auzoa - Ezkio-Itsaso
Tel. 943 72 25 52

ERRETEGIA AGIRRE ETXEA SAGARDOTEGIA

St. Luzia auzoa, 50
Tfnoa 943 72 59 87
EZKIO ITSASO



Mandubiko Benta



Tel. 943 88 26 73
MANDUBIA

LEHIAKETA

Aurrekoa: Aizu, zer iruditzen zaizu herrian bertan ume txikientzako eskola ipintzea? Erantzun duzuen guztion artean zozketa egin, eta oraingoan zori ona Plazategiko Aitor Zaldua-rentzat izan da. Bejondeiola! Eta jakin beza, bi afari dituela zain Ezkioko Ostatuan. On degizuela!

Hurrengoa: Franco hil ondoren, alkateak herritar guztiok botazioz aukeratzen hasi ginenetik, zein izan dira Ezkio-Itsason alkate izendatuak? Zuzen erantzuten duzuen guztion artean, ohi bezala, bi afarien zozketa egingo dugu, oraingoan Itsasoko ostatuan afaltzeko. Hilabeteko epea duzue erantzuna azpiko txartelean idatzi eta Santa Luzia Zaharreko gure gutun-ontzian uzteko. Aurrera!

Erantzuna:

(Neure) izen-deiturak:

Helbidea:

Tel.

ARGAZKI ZAHARRA



Ezkioko Arteaga baserriko sendia (Korta Okariz)

1940-43 inguruan ateratako argazkia da, Arteagako mandioan, igande-arratsalde batean. Aita-
amak dira, seme-alabekin eta amandrearekin.

Atzean, ezkerretik eskuinera: Jose (Legazpira ezkondua), Klaudia (Etxezarretara), Joxepa (Goetxera), Bixente (Arteagan bertan geratua), Maria (Sagaspera) eta Isabel (Plazategira).

Aurrean, ezkerretik eskuinera: Inaxi(a) ama, Jesus (Beasainera ezkondua), Maria Joxepa Okariz (amandrea, Eliasen ama, Osinaldeko Jose Inazio Kortarekin ezkondua), Inixio (Arrasatera), Elias (aita), Dorita (Azpeitira).

ITSASO
apaindegia

Ileapaindegia, estetika, masajeak

San Andres, 31
☎ 943 88 06 24
ORMAIZTEGI



- HIDROEREINTZAK
- LANDAKETAK
- INGURUGIRO-BERRESKURATZEAK
- MANTENIMENDUAK
- MINTEGIAK, ETAB.

ALTZIBAR BASERRIA Z/G
☎ 943 16 04 24
Fax: 943 16 04 24

Alegi auzoa

20217 GABIRIA
(GIPUZKOA)